



# FRUIZKO UDALA

## *Gizarte Zerbitzuak / Servicios Sociales*

---

Maiatzetik hasita Fruizko Udaletik bertatik eramaten da gizarte zerbitzuen arloa. Zerbitzu hori eroateko gizarte langile bat dago, Eider, eta zita aurretik hartu beharra dago, 94.615.32.10 telefonoan edo baita udaletxean bertan 9:00etatik-14:00etara.

### **BALIABIDEAK, PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK:**

Gizarte Langileak herritarrentzako arreta, informazioa, egoeren balorazioa eta aholkularitza eskaintzen du Udaletxeko gizarte zerbitzuen arloaren bitartez. Horretara, bertara jotzen daben herritarren egoerak, arazoak edo beharrianak aztertu, eta beharrezkoak diren neurriak hartzen dira. Zerbitzu batzuk ere eskatu eta bideratu litezke, hauek hain zuzen ere:

- Teleasistentzia
- Etxez etxeko laguntza zerbitzua
- Egoitzetan eta eguneko zentroetan sartzeko eskariak
- Ezinduentzako aparkatzeko txartela
- Ezintasun ziurtagiria lortzeko eskariak
- Mendekotasunen balorazioa
- Diru laguntzak
- Bidaietarako informazio eta eskabideak: Adineko, Imsero, Termalismoa...
- Larrialdi egoera bereziak (drogomenpetasunak, tratu-txarrak...)
- Adingabekoentzako eta familientzako autoebaluazio eta diagnostiko zerbitzua.
- Ezintasunen bat duten herritarrentzako informazio gunea. Bertatik bideratuko dira talde horren eta euren familien beharrianak eta eskariak.